



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

**DURANGON MUGIKORTASUN
PERTSONALEKO IBILGAILUEN
(MPI) ERABILERA ARAUTZEN
DUEN ORDENANTZA**

- Hasierako onarpena: 2025eko urriaren 29ko Osoko Bilkuran onartua
- Iragarkia argitaratzea: 2025eko azaroaren 5eko BAOn, 212.zk.
- Alegazioak: (D.A.Z, M.V.C, STOP BIDE INDARKERIA)
- BAOn argitaratua zk. 28 2026/02/11



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

AURKIBIDEA

Sarrera

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Eskumena
2. artikulua. Aplikazio-eremua
3. artikulua. Ordenantzaren xedea

Definizioa eta sailkapenak

4. artikulua. Definizioa
5. artikulua. Sailkapena

Zirkulazio-baldintzak

6. artikulua. Zirkulazio-baldintzak
7. artikulua. Aparkalekuak
8. artikulua. MPlak ibilgetzea eta kentzea

Zehapen-araubidea

9. artikulua. Zehapen-arauen konkurrentzia edo pilaketa
10. artikulua. Arau-hauste arinak
11. artikulua. Arau-hauste larriak
12. artikulua. Arau-hauste oso larriak
13. artikulua. Zehapenak eta hauek mailakatzeko irizpideak

Araudi osagarria

Eranskinak

- I Eranskina: MPlen sailkapena
- II Eranskina: Guneen definizioa



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

SARRERA

Durangoko Udalak, trafikoaren eta zirkulazioaren arloan dituen eskumenak erabiliz, ordenantza hau egin du, udalerrian mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak (MPI) erabiltzeko arau-esparru argi eta eguneratu bat ezartzeko. Izan ere, hiri-eremuan ibilgailu horien presentzia gero eta handiagoa da, eta, beraz, araudi honek bizikidetzaren seguru eta ordenatua bermatzeko beharri erantzuten dio, bide-segurtasuna eta espazio publikoaren erabilera arduratsua zainduz.

Ordenantza hau egiterakoan, Durangoko Udal Araudi Organikoaren 95. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioak bete dira: beharra, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

Premia- eta eraginkortasun-printzipioa aplikatuz, ordenantza hau interes orokorreko arrazoietan oinarritzen da, bereziki, bide-segurtasunaren babesean, herritarren bizikidetzaren hobekuntzan eta hiri-espazio publikoaren antolamenduan, Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuen (MPI) erabilera gero eta handiagoaren aurrean. Araudi hori tresnarik egokiena da MPI erabiltzaileen zirkulazioa, aparkalekuak eta jarrera modu argi eta eraginkorrean arautzeko, garraibide berri horiek hiri-bilbean integratuz, gainerako pertsonei eta inguruneari kalterik egin gabe.

Proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz, Ordenantzak MPLein erabilera arduratsu, seguru eta harmoniatsua bermatzeko ezinbestekoak diren xedapenak bakarrik jasotzen ditu, horien erabilera justifikaziorik gabe oztoka lezaketen eta beharrezkoak ez diren murrizketak edo eskakizunak ezarri gabe. Erregulazio orekatua lortu nahi izan da, ibilgailu mota eta zirkulazio-egoeren aniztasuna kontuan hartuta, eta, hala dagokionean, trafikoari, mugikortasunari eta bide-segurtasunari buruzko araudi orokorrera jo da.

Arauk, halaber, eraginkortasun-printzipioari erantzuten dio, udal-administrazioaren zaintza-, kontrol- eta zehapen-lana errazten duen arau-esparru argi bat ezartzen baitu, arau-bikoiztasunak saihestuz eta aurreikusi gabeko egoeretatik eratorritako gatazkak murriztuz.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, indarrean dagoen Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Foru Aldundiko arau-esparrua errespetatuz egin da ordenantza, bereziki Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bateginean eta Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren jarraibideetan xedatutakoa betez. Horrela, Durangoko udalerrian MPLein aplika dakiekeen araubide juridikoaren koherentzia, argitasuna eta egonkortasuna bermatzen dira, arau-kontraesanak saihestuz eta herritarrei ziurtasuna erraztuz.

Azkenik, gardentasun-printzipioa betez, Ordenantza honen prestaketan helburuak eta xedeak argi eta garbi zehaztu dira, eta horretarako kontsulta publikoa egin da. Horrela, herritarrek informazioa eskuratzea eta izapidetze-prozesuan modu aktiboan parte hartzea bermatu da. Horrek guztiak arauaren legimititatea indartzen du, eta haren onarpen soziala errazten du.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Araudi honen bidez, Durangoko Udalak hiri-mugikortasun seguru, inklusibo eta jasangarriarekiko konpromisoa berresten du, tokiko ingurunearen egungo erronketara egokituta.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Eskumena.

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak eta Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak Udalaritrafikoaren eta zirkulazioaren arloan emandako eskumenaren arabera egin da.

2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Ordenantza honetako arauak udal-eskumenekoak diren Durangoko herri barruko bide guztietan aplikatuko dira.

3. artikulua. Ordenantzaren xedea.

Ordenantza honen xedea da mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak, elektrikoak zein giza trakziokoak, Durangoko espazio publikoan eta bideetan nola erabili, zirkulatu eta aparkatu arautzea, baita ibilgailu horiek antolatu, zaindu eta kontrolatzea, arau-hausteak identifikatu eta zehatzea, eta ibilgetzeko, bide publikotik kentzeko edota ibilgailuen gordailura eramateko kautelazko neurriak hartzea ere.

DEFINIZIOA ETA SAILKAPENA

4. artikulua. Definizioa.

Gurpil bat edo gehiago dituen ibilgailua, plaza bakarra duena eta motor elektriko batekin funtzionatzen duena. Motor horrek 6 eta 25 km/h bitarteko abiadura eman diezaioke ibilgailuari, diseinuaren arabera. Eserleku bat izan dezake, baldin eta autoorekatzeko sistema badu. 100 VCCrainoko bateria eta 240 VCArainoko kargagailu integratua izan dezake.

5. artikulua. Sailkapena.

Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuek erabilera desberdinak izan ditzakete, hala nola erabilera partikularra, alokairua edo «sharinga», zerbitzu publikoak, erabilera turistikoak, etab., baina ikuspegi teknikitik, MPIek bete beharreko baldintzei dagokienez egin daitekeen bereizketa bakarra honako hau da:

- Garraio pertsonalerako MPIak.
- Salgaien garraiorako edo beste zerbitzu batzuetarako MPIak.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Aurreko atalean aipatutako definiziotik kanpo geratzen dira honako ibilgailu hauek:

- Bide publikoetatik kanpo zirkulatzeko berariaz diseinatutako ibilgailuak edo lehiaketarako sortutako ibilgailuak,
- mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak,
- 100 VCC edo 240 VCA baino gehiagoko lan-tentsioa duten ibilgailuak,
- jostailutzat jotzen diren ibilgailuak, gehieneko abiadura 6 km/h baino handiagoa ez dutenak,
- Indar Armatuek soilik erabiltzeko diseinatu eta fabrikatutako ibilgailuak,
- elektronikoki lagundutako zikloak, hau da, bizikleta elektrikoak (EPAC),
- 168/2013 (EB) Erregelamenduaren esparruan sartzen diren ibilgailuak **II. TITULUA**

ZIRKULAZIO-BALDINTZAK

6. artikulua. Zirkulazio-baldintzak.

1. Une oro errespetatu beharko dira Zirkulazioko Udal Ordenantzan eta trafikoaren, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide-segurtasunaren arloan indarrean dagoen gainerako araudian ezarritako zirkulazio-arau orokorrak.
2. Debeakuta dago aurikularrekin, kaskoekin edota bestelako gailu mugikorrek erabiliz zirkulatzeko.
3. Debeakuta dago erregelamendu bidez ezarritako alkohol-tasak gaindituta edo drogen eraginpean zirkulatzeko.
4. MPlakin zirkulatzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da eta AM baimena izanez gero, 15 urtekoa.
5. Nahitaezkoa da argiak erabiltzea eguzkia sartzen denetik irten bitartean eta ikuspen gutxiko baldintzetan. Era berean, gidariak arropa edo elementu islatzaile bat eraman beharko du, bide publikoko gainerako erabiltzaileek nahikoa denboraz eta distantzia egokian bereiz dezaten.
6. Debeakuta dago gidaria ez den beste inor ibilgailuan garraiatzea.
7. Nahitaezkoa da kaskoa eta atzeko argia erabiltzea.
8. Gune publikoetako erabilera:

a. Espaloietan, oinezkoentzako guneetan, plazetan, parkeetan eta lorategietan (gune partekatuak):

Debeakuta dago MPlakin zirkulatzeko. Toki hauetan erabiltzailea ibilgailutik jaitsi beharko da eta oinez jarraitu beharko du, hura eskuan eramanez.

b. Oinezkoen guneetara sartzeko ordenantzan zehaztutako oinezkoentzako I. eta II. guneetan:

Toki hauetan jende asko dabilenean, erabiltzailea ibilgailutik jaitsi beharko da eta oinez jarraitu beharko du, hura eskuan eramanez. Kasu hauetan segurtasun-neurriak zorrotz behar dira eta horrela, pertsonen artean sigi-saga ibiltzea saihestuko da, baita pertsonak metro batetik beherako distantziara aurreratzea ere, betiere 10 km/h-tik beherako abiaduran.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen erabiltzaileak gutxienez 2 metroko distantzia mantendu beharko du eraikinen fatxadetatik, atarietatik, dendetatik edo bide publikoetako beste sarbide batzuetatik, leku horietatik irten daitezkeen pertsonak harrapatzeko edo haiekin talka egiteko arriskua saihesteko, distantzia hori mantentzea ezinezkoa den bideetan izan ezik, espaloia estuegia delako edo bide publikoan oztopo iraunkorrak daudelako, hala nola Zeharkalean eta San Agustineko zubian. Kasu horietan, erabiltzaileak ibilgailutik jaitsi eta oinez jarraitu beharko du, hura eskuan eramanez.

c. Galtzadan:

Debekatuta dago herri barruko zeharbideetan, hiriarteko bideetan eta autobide eta autobietan mugikortasun pertsonaleko ibilgailuekin zirkulatzea. Era berean, debekatuta dago ibilgailu horiekin tuneletan ibiltzea.

d. Bizikleta-bideetan MPLak erabili ahal izango dira, baldin eta 15km/h-ko abiadura gainditzen ez badute.

7. artikulua. Aparkalekuak

MPlak horretarako prestatutako lekuetan edo motozikleta eta bizikletentzako lekuetan aparkatu beharko dira. Hurbileko eremuetan ez badago, zintarriaren ondoko espaloietan aparkatu ahal izango dira, baldin eta hiru metro baino gehiagoko zabalera libre uzten bada, eta bi metro baino gehiago uzten badira ukipen-zoladurarekiko. Aparkatzeko, MPLa hiri-altzarietara lotu ahal izango da, baldintza hauetan:

1. Bizikleta-aparkalekuetan lotu ahal izango dira.
2. Debekatuta dago banku, markesina, seinaleztapen-elementu edo bestelako hiri-altzarietan lotzea, baldin eta ibilgailuak aipatutakoen erabilgarritasuna edo sarbidea oztopatzen badu.
3. Debekatuta dago zuhaitz edo landareetan lotzea.
4. Debekatuta dago hiriko garraio publikoen gurelaken ondoan, eta zalanetan bideratutako lekuen, taxien edo mugikortasun urriko pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuen ondoan aparkatzea.
5. Debekatuta dago erregistro- edo zerbitzu-estalkien gainean aparkatzea.
6. Debekatuta dago MPLak eraikin publikoetako, osasun-zentroetako eta ikastetxeetako sarreretan aparkatzea, baldin eta sarrera edo pertsonen joan-etorria oztopa badezakete.

8. artikulua. MPLak ibilgetzea eta kentzea.

Trafikoa antolatu eta arautzeko eginkizunaren barruan, bai eta udal-araudia betetzen dela zaintzeko eginkizunaren barruan, udaltzainek mugikortasun pertsonaleko ibilgailu bat ibilgetu ahal izango dute honako kasu hauetan:

- Bide-segurtasunerako arriskutsua denean, istripuak edo beste bide-erabiltzaile batzuei eragozpenak



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

eragin diezazkieketen akatsak dituelako.

- Ezarritako ezaugarri teknikoei edo segurtasun-ezaugarriei buruz indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik (hala nola gehieneko abiadura, frenoak edo argiak/islagailuak).
- Nahitaezko dokumentaziorik ez badu (adibidez, 2024tik aurrera merkaturatutakoentzako homologazio-ziurtagiria).
- Ezin bada jabea identifikatu.
- Behar bezala ez erabiltzeagatik (debekatutako guneetan zirkulatzea, ausarkeriaz gidatzea, bidaiariak eramatea).

Era berean, kasu hauetan ere ibilgailua kendu ahal izango da:

- Ibilgetzea eragin zuten arrazoiek bere horretan dirautenean.
- Gidaria alkoholaren eta/edo drogen eraginpean badago.

Ibilgailua ibilgetzearen edo kentzearen ondorioz ordaindu beharreko tasak MPIaren titularraren kargura izango dira.

ZEHAPEAN-ARAU BIDEA

9. artikulua. Zehapen-araubidea.

1. Ordenantza honek ezartzen dituen jokabide-arauen aurkako ekintzak edo ez-egiteak administrazioko arau-hausteak dira. Hauek, arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, eta ordenantza honetan xedatutakoaren arabera zehatuko dira.
2. Trafikoari eta bide-segurtasunari buruzko legerian edo ordenantza honek berariaz edo inplizituki aipatzen duen beste edozein xedapenetan aurreikusitako arauak ez betetzea arau horietan aurreikusitakoaren arabera zigortuko da.
3. Ordenantza honen aurkako arau-hausteak ibilgailuaren gidariari egotzi ahal izango zaizkio, salbu eta gidaria adingabea bada; kasu horretan, legezko tutoreak izango dira erantzuleak.

10. artikulua. Arau-hauste arinak.

1. MPI bat gidatzea horretarako eskatzen den gutxieneko adina izan gabe.
2. MPI bat argirik gabe gidatzea, eguzkia sartzen denetik irten bitartean edo ikuspen gutxiko baldintzetan.
3. MPI bat gidatzea beste pertsona bat eramanez (ibilgailuan bi pertsona edo gehiago joatea).
4. MPI bat gidatzea kaskoa eta/edo nahitaezko argiak erabili gabe eta/edo ikuspen gutxiko baldintzetan jantzi edo elementu islatzailea erabili gabe.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

11. artikulua. Arau-hauste larriak.

1. MPI bat gidatzea aurikularrak, kaskoak edo bestelako gailu mugikorrak erabiliz.
2. MPI bat espaloi edota oinezkoentzako guneetatik gidatzea.
3. MPI bat zabarkeriaz gidatzea. Jokabide desegokitzat hartzen da arau-hauslearen jarrera arduragabea, gidatzeko behar den arreta edo konturik gabe.
4. Oinezkoentzako guneetara sartzeko Ordenantzan zehaztutako oinezkoentzako I. eta II. guneetatik MPI batean zirkulatzea, eraikinen, atarien, saltokien edo sarbide publikoetako beste sarbide batzuen fatxadetatik 2 metroko gutxieneko distantzia zaindu gabe.
5. Zeharkaketik eta San Agustineko zubitik zirkulatzea, ezinezkoa delako 2 metroko gutxieneko distantzia mantentzea eraikin, atari, saltoki edo bide publikoetako beste sarbide batzuen fatxadetatik.

12. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

1. MPI bat ausarkeriaz gidatzea. Jokabide ausartegia da nahita egindako ekintza edo ez-egite arriskutsua, baldin eta agerikoa bada bide-segurtasuna eta pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen ari direla.
2. MPI bat erregelamendu bidez ezarritako alkohol-tasa gaindituta eta/edo drogen eraginpean gidatzea.

13. artikulua. Zehapenak eta hauek mailakatzeko irizpideak.

Trafikoari eta segurtasunari buruzko legerian eta toki-araubideari buruzkoan aurreikusitako zenbatekoekin bat etorritik, ordenantza honen aurkako arau-hausteak honako zehapen hauekin zigortuko dira:

- a. Arau-hauste arinak: 100 euroko isuna.
- b. Arau-hauste larriak: 200 euroko isuna.
- c. Arau-hauste oso larriak: 500 euroko isuna.

Hala ere, honako arau-hauste hauek 1.000 euroko isunarekin zehatuko dira:

- Erregelamendu bidez ezarritako alkohol-tasa gaindituta eta/edo drogen eraginpean gidatzea.
- Ibilgailu-gidari guztiek eta gainerako bide-erabiltzaileek, trafiko-istripuren batean nahastuta daudenean edo arau-hausteren bat egin dutenean, organismoan alkohola edo drogak detektatzeko probak egiteko duten betebeharra ez betetzea.

ARAUDI OSAGARRIA

Hemen jasota ez dagoenerako, eta aplikatzekoa den heinean, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

urtarrilaren 12ko Ebazpenean xedatutakoa beteko da. Ebazpen horren bidez, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen ezaugarrien eskuliburua onartu zen.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

I. ERANSKINA: MPlen SAILKAPENA

1. Garraio pertsonalerako MPlak

Garraio pertsonalerako MPlak honako taula honetan jasotako ezaugarriak dituzte:

	Garraio pertsonalerako MPlak	
Gehieneko abiadura	6 eta 25 km/h artean	
Ibilgailu bakoitzaren potentzia nominala ⁽³⁾	Autoorekatzeko sistemarik ez duten ibilgailuak: $\leq 1.000 \text{ W}$	Autoorekatzeko sistema duten ibilgailuak ⁽⁴⁾ : $\leq 2.500 \text{ W}$
Abiada-masa ⁽⁵⁾	< 50 kg	
Gehieneko luzera	2.000 mm	

⁽³⁾ Motorraren fabrikatzaileak adierazi eta neurtu beharko du potentzia nominala, EN 15194:2018 arauaren 4.2.14 atalaren arabera, edo, bestela, Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoaren 85. zenbakiko Erregelamenduan (UNECE) – M eta N kategorietako ibilgailu motordunen propulsiarako barne-errekuntzako motorrak edo motor elektrikoak homologatzeari buruzko xedapen uniformeak, motor elektrikoen potentzia garbia eta 30 minutuko gehieneko potentzia neurtzeko dagokionez (DO L 323, 2014-11-07koa, 52. or.).

⁽⁴⁾ Potentzia horren % 60, gutxienez, autoorekatze-sistemara bideratu behar da.

⁽⁵⁾ Abiada-masa: ibilgailuaren masa, 168/2013 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Garraio pertsonalerako MPlen ezaugarriak

Gehieneko altuera	1.400 mm
Gehieneko zabalera	750 mm

2. Salgaien garraiorako edo beste zerbitzu batzuetarako MPlak



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Salgaien garraiorako edo beste zerbitzu batzuetarako MPIak gutxienez 3 gurpileko MPI mota bat dira, eta horietatik 2 kargatik hurbilen dagoen ardatzean kokatzen dira, eta aipatutako erabilerarako gaitutako plataforma edo kutxa bat izaten dute.

Salgaien garraiorako edo beste zerbitzu batzuetarako MPIek honako ezaugarri espezifiko hauek dituzte:

	Salgaien garraiorako edo beste zerbitzu batzuetarako MPIak
Gehieneko abiadura (berezkoa).	6 eta 25 km/h artean
Ibilgailu bakoitzaren potentzia nominala ⁽⁶⁾	≤ 1.500 W
Teknikoki onargarria den gehieneko masa (MMTA) ⁽⁷⁾ .	< 400 kg
Gehieneko luzera	2.000 mm
Gehieneko altuera	1.800 mm
Gehieneko zabalera	1.000 mm

⁽⁶⁾ Motorraren fabrikatzaileak adierazi eta neurtu beharko du potentzia nominala, EN 15194:2018 arauaren 4.2.14 atalaren arabera, edo, bestela, Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoaren 85. zenbakiko Erregelamenduan (UNECE) – M eta N kategorietako ibilgailu motordunen propulsiarako barne-errekuntzako motorrak edo motor elektrikoak homologatzeari buruzko xedapen uniformeak, motor elektrikoaren potentzia garbia eta 30 minutuko gehieneko potentzia neurtzeari dagokionez (DO L 323, 2014-11-07koa, 52. or.).

⁽⁷⁾ Teknikoki onargarria den gehieneko masa (MMTA): fabrikazio-ezaugarrien arabera ibilgailu batek izan dezakeen gehieneko masa, ibilgailuaren fabrikatzaileak zehaztuta, EN 17128:2020 arauaren 3.35 definizioan zehazten den bezala.

Ibilgailu hauek ezin izango dira inola ere bidaiariak garraiatzeko erabili.

II. ERANSKINA: GUNEEN DEFINIZIOA



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Espaloia: Galtzadaren luzetarako gunea, goratua edo ez, oinezkoak ibiltzeko dena.

Oinezkoentzako gunea: Oinezkoentzako soilik den gunea.

Bizikleta-bideak: Galtzadan edo espaloian txirrindulariak ibiltzeko soilik den gunea.

Galtzada: Ibilgailuak zirkulatzeko den kaleko gunea.

Oinezkoentzako I. eta II. gunek: Oinezkoen gunetara sartzeko Ordenantzan zehaztutako I. eta II. gunek